

3. ELKARTE KLABEAK

Gure hornitzaile nagusia Ausolan izango da, hauek eskuratuko digute janaria, hala ere, beste hainbat hornitzaile beharko ditugu.

Hasteko Ausolani gure etekinen ehuneko 30a emango diogu eta espero dugu diru zati horrekin sukaldea/langileak hobetzea erabakitzea. Izan ere, sekulako aukera dutela uste dugu, horrela harri batez bi kolpe egin dezakete; batetik, ikastoleetako jangela hobetu eta beraz, agian etekinak handitzea lortu eta gehien behar dutenei laguntzea.

Bigarrenik, gobernuaren kolaborazioa esopero dugu, beraien diru laguntzak jasoz eta ekintzak batera antolatuz, horrela Donostia/Gipuzkoa mailan proiektu anitzak antolatu ditzazkegu jendeak gure mugimendua ezagutu dezan eta horrela nahi badute, bolondres bilakatzeko. Hori gutxi balitz, CAF, Irizar enpresen laguntza ere jasotzea espero dugu hauek jantoki handia dutelako.

Hirugarrenik, “eco swap” enpresak tupperrak eskuratuko dizkigu, horrela tupper hauek ohiko bezeroei eman diezaizkiokegu; modu honetara, hurrengo egunean tupper berdinean sar dezakegu janaria. Hala ere, ekintza ekologikoagoa egiteko bezeroek tupperra ekartzen duten edo ez apuntatuko dugu. Ondorioz “eco swap” dendari etekinen %20a emango diogu.

Laugarrenik, hiriko beste GKE-kin kolaboratu nahi dugu, bereiziki gure sektore berdinean aritzen direnekin esate baterako, zaporeak. Modu honetara gure etekinak elkartu ditzazkegu eta zerbitzu hobea eskaini. Gainera, kompetentzia ez sortzeko enpresa bakoitzak duen lana egiteko, auzoak bana ditzazkegu.

Azkenik, bestelako kolaborazio pertsonal edo profesionaletara irekiak gaude. Markaren batekin kolaboratzeko aukera ez dugu baztertzen, gure enpresa nazioartekoa bilakatzeko aukera bikaina izango litzatekeela uste dugu. Horrela “take away” bezalako bidalketa egin genezake eta horrela mundu guztiko jangelak gure mugimendura batu. Noski, hau etorkizun batean izango litzateke posible, gaur egun Gipuzkoara iristen pozik gaude.

Esan bezala, kolaborazio pertsonalak oso ongi etorriko litzazkiguke, gure proiektuan edonorrrek laguntzeko aukera izango du, bai modu finantzieroan, bai eskulana eskainiz. Beraz, esku zabalekin itxoingo dugu hiritarren laguntza, horregatik beharrezkoa izango da gobernuaren boterea ideia zabaltzeko.